

## **NORTASUNAREN SASKI OPAROA**

Ane Badiola Ostalaiz, 15 urte

*Oiartzun*

Kandela baten argipean  
zaitut laztana desira,  
kandela baten argipean  
maitekiro begira.

Oroitzapenen kutxa zabaldu,  
kutxa arrotza,  
arrotza bezain sutsua,  
faltsua.  
Bertan zara ageri,  
bertan islada.

...

Hegalik gabeko hegaztiak  
jasaten duen  
segurtasun gomuta  
besapean hartuta,  
galduta.

Hegaztiak hegaka dihardu,  
ameslariak ametsetan.

Zein ote  
hegalik gabeko hegaztiaren,  
ametsik ez duen  
ameslariaren funtsa?

Hutsa.

Nortasun iraultzailea dut galdu,  
ez nago salbu,  
bizitzak zentzurik ba al du?

Saski garratza dut eskura,  
haize xafla gupidabakoak  
eroandako nortasunaren saskia.

Hutsarte du oinarri,  
etsipena goilara,  
hipokresia sardeska,  
amorrua labana,  
bekaizkeria jaki,  
koldarkeria edari,  
gorrotoa zapi,  
nahigabea estalki.

...

Igerian ez dakien  
arrain dolugarria buruan,  
naufraigoaren moduan,  
zentzurik gabeko guduan,  
ildo galduan.

Ezereza dut patua,  
esperantza uxatua,  
askatasun urratua,  
lausotua.

...

Instant batez bederen  
entzun arimaren oihartzuna  
eta eutsi gogor,  
gogor eutsi benetan,  
zarena zarella,  
zarena zarelako,  
identitatearen ferekez gozatuz  
lor dezazun xedea  
eta bide batez,  
nortasunaren saski oparoan

“zentzua oinarri,  
arrazoia goilara,  
duintasuna sardeska,  
boterea labana,  
pasioa jaki,  
esperantza edari,  
askatasuna zapi  
eta zoriona estalki bihur dadin.”